

ESKAERA	EGINDA	PROZESUAN	EZ DA EGIN
Unibertsitatearekin harremana sendotzea.		Harremana sendotu da eta hasi gara hainbat ekitaldi batera antolatzen. Asko dago egiteko oraindik	
Ekipamendu kulturala sortzea (Zaldibar).	Urte bukaeran inauguratuko da.		
Helduentzako zinea		Ez dugu ekipamendu aproposik zinea emateko, baina, urtean zehar hainbat dokumental programatu dira.	
Txistulari eskola sortzea			Ez da egin.
Luis Ezeiza eskola eta biblioteca banatzea			Momentuz, ez da egingo.
Auzoetako jaiak berreskuratzea (txandaka)			Ez da egin. Ez dugu saiakera nahikorik egin.
Herriko taldeak indartzea. Diru laguntzak eman kultur ekintzak egiteko, nahiz eta eratu gabeko elkarteak izan.	Herriko taldeek, nahiz eta eratu gabe egon, laguntza ekonomikoa zein azpiegitura aldekoa jasotzen dute ekitaldiak egiteko.		
Liburutegian egunkariak irakurtzeko gunea manparekin ixtea			Ez da egin.
Zaldibar antzokiaren kudeaketa herrikoia izatea	Kudeaketa herrikoia izatea bultzatu da, eta horretarako "kultur mahaia" eratu da.		
Neguan zine emanaldiak eskaintzea	Umeentzako antolatzen dira neguan zine emanaldiak.		
Sanpedroak asteburura pasatzea aztertu	Gaia jai batzordean aztertu zen eta tokatzen den bezala uztea erabaki zen.		
Kultura azpibatzerdeko bilerak zabaltzea		Askotan egin ditugu bilerak zabaltzeko saiakerak, baina ez dute	

		arrakastarik izan. Lan gehiago egin behar da.	
Musika eskolaren egoitza aldatzea			Saiakera bat egin zen, baina ez zuen fruturik eman.
Herriko eragileak elkartzea denon artean gauzak egiteko		Garagardo jai solidarioa eragileen artean egin da. Ekintza gehiago egin behar dira.	
Herriko auzoetan ekintzak eskaintzea			Ez da egin. Landu behar den proposamena da.
Ikastaroak antolatzea astean zehar eta aste bukaeretan	Ikastaroak antolatzen dira astean zehar, eta tailerrak, larunbatetan.		
Jaietan 11-15 urte bitarteko gazteentzako eskaintza		Hainbat ekintza antolatzen dira Gaztelekutik bideratuta. Gehiago egin behar dira.	
Museoa eta kultur etxea bateratzea			Ez da egin.
Elizateak: urtaro bakoitzean ekintza bat antolatzea			Ez da egin.
Kultur proposamen anitza eta erakargarria eskaintzea	Kultura zerbitzua, elkarteekin lankidetzan, herritarren espektatibak beteko dituen kultur proposamen anitza eta zabala eskaintzen saiatzen da.		
Parte hartzea bultzatzea	Jasotako iradokizunak gauzatzen saiatzen gara, eta bere proiektuak egiteko gai diren elkartei diru laguntzak edota laguntza logistikoa ematen zaie.		
Bibliotekan wifia hobetu eta mahaietan entxufeak jartzea		Wifi seinalea hobetuko da urte hau bukatu baino lehen, eta ordenagailu eramangarrientzako entxufeak	

		jarriko dira mahaietan.	
Biblioteka zerbitzua hobetzea	Informazioa emateko panel elektronikoa, erabiltzaileentzako ordenagailu gehiago, tabletak eta liburu elektronikoak jarri dira.		
Ikasteko lekua sortzea bibliotekan			Bibliotekak duen egiturekin oso zaila da esparru berezi bat jartzea. Dena dela, helduen esparrua tokia aproposa izan daiteke ikasteko.